

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

517

26/2017 DEKRETUA, urtarrilaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoaren Administrazio Kontseiluko kide batzuk aldatzen dituena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoaren estatutu sozialak onartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 8.2 artikuluan xedatzen denez, Euskal Autonomia Erki-degoko Administrazioaren ordezkari-tza egiten duten bost kidek osatzen dute erakunde horretako Administrazio Kontseilua, erakunde publikoko lehendakari-z gain. Jaur-laritzak izendatu beharko ditu kide horiek, alegia: bi kide Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren proposamenez, eta gainon-tzeko hirurak, Osasuneko sailburuaren proposamenez.

Horri jarraituz, erakunde horretako Administrazio Kontseiluko azken kideak kasuan kasuko dekretuen bidez izendatu eta ordezkatu ziren.

Sail bietako zenbait kargutan aldaketak egon direnez, beharrezkoa da berriro ere Administrazio Kontseiluko kide batzuk aldatzea.

Ondorioz, Osasuneko sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak 2017ko urtarrilaren 24ko bileran gaia eztabaidatu eta onartu ostean, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakar-ra.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoaren Administrazio Kontseiluan kide hauek izendatzea:

Bigarren kontseilukidea: Fátima Ansotegi Elordi andrea, titularra Osasuneko sailburuaren proposamenez.

Hirugarren kontseilukidea: Daniel Salazar Irusta jauna, Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbi-tzu Orokoretako zuzendaria, titularra Osasuneko sailburuaren proposamenez.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urtarrilaren 24an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.